



Erdian S. Lewis (1936). Bere ezkerrean: L. Valentine. Bere eskubian: D.J. Williams.

SAUNDERS LEWIS-EN IRAKASPENAK

Ia batera galdu dituzte galestarrek beren bi aittonamoña famatuena: Kate Roberts And. (94) ipuinlari eta nobelaria, joan den ptsailean, eta Saunders Lewis Jn. (92) politikari eta idazlea, joan den irailean. Hots, «Egin»en (ik. X8) bigarrenaren heriotza aipatu nuenean, «Cymruko Telesforo hil dela» idatzi nuen. Eta baiesper hori hobeki zehazteko eskatu dit zenbaitek. Horretara datoz, beraz, lerro hauek.

Zinez esan daiteke S. Lewis Cymruko borroka abertzale guztietan mogitu dela; eta beraren ibilbidea eta patua, horretara, eredu gerta dakizkigukeela, baita argiiturri oparo ere.

Aberrigintzan dena saiatu zuen S. Lewisek bere Cymru maitatua galestartzeko eta abertzaletzeko («kemri») ahoska otoi hitz hori, gutxi gorabehera galestarren antzera egiteko). Eta, Telesforok bezalatsu, urteak joan ahala, bere adinkideekiko urrundu, eta gazteagoek txalotzen zutela erreparatzen zuen.

Jakinq, Txomin Peillen ere aipa nezakeen. Zuberotar honek, jakina denez, Jon Mirandek bezala, Parisen sorturik, frantses oso eta borobil bilakatzeko baldintza guztiak baitzitu bere alde; Saunders Lewis ingelesteko bezala. Zertarako jadanik etendako nazioloturak birilotuko? Baina Txomin bere arbasoen Urdatsera itzuli den bezala, S. Lewis ere Cymrura itzuli zen.

Galestar idazlea Cheshirenzen jaio zen, Cymrutik at (Airnon edo Santanderren bezalatsu, mugatik hurbil). Eta

bere familian kemrieraz mintzo bazen ere, ingelesez hartu zuen eskola: Wakkasetko Liscard High School delakoan. Eta gero ere Liverpoolen errezibitu zuen karrerairakaskuntza: deserrian, hitz batez, eta ingelesez. Zertarako galestartuk?

Hala ere, ahal bezain laister itzuli zen S. Lewis bere aberrira; artean, Liverpoolgo Unibertsitatean, iaia izkutu, behar ez zituen zeltikozko eskolak entzule gisa jarraitu ondoren. (Telesforo, oker ez banago, Madrilen zegoen ikasle).

Nola abertzaletu zen S. Lewis? Noiz? Berak aitortzen zuen: Belgikako trintxeretan (1418 gerratean, beraz) Emrys ap Iwan galestar abertzalearen biziera irakurri zuelarik. Lewis 1893an jaio zenez gero, gaztea zelarik; baina, berriro ere, erabat atzerrian.

Berehala bere literatur tesia bukatu ondoren, Galesko Unibertsitatean

sartu zen. Eta 13 urtez, 1923tik 1936ra Abertaweko Ikasguan azaldu zituen kemrierazko hizkuntza eta literatura, Cymruko Hegoaldean.

Besterik ere egin nahi zuen, ordea, eta 1925an, «kemrieradun» mordoxka baten laguntzaz, «Y Blaid Genedlaethol Gymreig» Alderdi politikoa eraiki zuen; gerora «Plaid Cymru» soilki deitua. Eta 1939ra arte Alderdiko Lehendakaria izan zen.

Alderdiaren habe nagusia nazio-hizkuntzaren erreibindikazioa jarri zuen; eta 1932ra arte partiduak argitaratzen zuen hilabetekari bakarra («Y Ddraig Coch» zeritzona) kemriera hutsez zetorren. Caerdydd (= Cardiff)ko «erdaldunen» presioa gabe, Lewisiek ez zuen ingelesez ezer argitaratuko; ezta abertzaletasuna zabaltzeko ere. Eta alde honetatik, «Adfer» taldea izan daiteke gaur, hein batez, haserako S. Lewisen jarraitzailea.

Jaiotzako «Plaid Cymru» zahar haren bost helburu nagusietan, nabarmen ageri da S. Lewisen eragina: 1/aurrerakoan ezinezkoa izango da Galesen inork inolako eskolakuntzarik ingelesez hartzea; 2/ eskola mailatik eta Unibertsitate mailaraino, ikasketak guztiak kemrieraz egingo dira, 3/ Unibertsitatean matrikulatu ahal izateko, nahitaezkoa aztergaia izango da kemriera; 4/ Tribunaletan, maila ofiziala aitortuko zaio kemrierari, eta 5/ bai bertako, bai britaindar mailako, postu eta bulego ofizial guztietan, beharrezkoa izango da kemrieraren eza-guera.

Soziolinguistika oraindik ere ez zeoelarik, elebitasunaren kontra paratu zen S. Lewis; eta ingelesari gerra deklaratu zion anpuruski: «Rhaid ei dileu o'r tir elwir Cymru: delenda est Carthago» (= ezbatu egin behar da ingelesa Cymru deritzon lurralde honetatik: "delenda est Carthago"). Helburua garbi: Cymru kemrieraduna eta elebakarra. Eta kitto.

Pentsakera horren arauera, hizkuntza bizirik dagoen eskualdeetatik zabaldu zen S. Lewisen alderdia, Hegoaldean, eta Cardiff inguruan bereziki, moderazio gehiago eskatzen zelarik. S. Lewisiek, dena dela, erradikala zen bestela ere: inoiz deputaturik lortuz gero, Londresko Parlamentura ez joatearen aldekoa zen. Britainarre-kiko haustura eskatzen zuen: «ezin daitezke batera Jainkoa eta Deabrua zerbitza. Eta berean, ezin daitezke In-

galaterra eta Cymru batera zerbitza. Hautatu egin behar da: bata ala bestea. Cymru ez da Ingalaterra, eta jakin egin behar du».

Taktikaz edo sinestez, ez zuen halere independentzia osoa eskatzen (honetan urrun dago Telesforo): «hizkuntza eta nazionortasuna salbatzeko adina askatasuna besterik ez dugu nahi».

S. Lewis katolikoa zen, eta ez zen halere «bakezale» esan ohi dena. Indarraren bj harra aitortzen zuen garbiki, are bortxa armatuaren beharra ere. Baina ontasunaren eta sakrifizioaren eragin mugagabea sinetsirik (honetan Gandhiren «satyagraha» praktikatzan zuen), bortxarik gabeko jokabideak nahiago zituen, beretzat

gutxienez. Eta bizia eman nahiago zuen, bizia etsaiari kendu baino. Baina politikeriaren jukutriek eta konbinaketek berehala nardatu zuten errotik.

Oihartzunik ez, ordea, britaindar aparatoan, eta S. Lewisiek indarrean hastea eraba, i zuen. Eta Plaid Cymruko Lehendakaria zelarik, odolik gabeko ekintza sinboliko bat egitea erabaki zuen: britaindar Armadak Llyn penintsulan eraiki berria zuen kasernak sabotajez erretzea. Idazle baten (D.J. Williams) eta apaiz baten (Lewis Valentine) laguntzaz baliaturik, su eman zion esandako kasernari, eta, oso gandhiar modura, bere burua aurkeztu zen polizira bere bi lagunekin, zegokion zigorra ordaintzeko prest.

Indarraren beharra aitortzen zuen garbiki, are bortxa armatuaren beharra ere



PRINCIPLES OF NATIONALISM

Sekulako iskanbila sortu zen, jakina. Epaitu egin zituzten. Caernarvon-en aurrenik, eta Londresen gero. Kemrieraz deklaratzeko asmoa azaldu zuen S. Lewisek; baina juezak, ingelesez ere «ongi zekielata», ez zion eskubide hori eman.

Preso altxatu zuten horrela, bere bi lagunekin; eta 9 hilabete pasa zituen Wormwood Scrubseko gartzelan, bere Unibertsitatepostua galduz. Plaid Cymruko Lehendakaitza ere, irten eta berehala galdu zuen.

Lanbiderik ez Unibertsitatean; eta orduantxe idatzi zuen bere obraren parterik handiena. Bai antzerki mordo bat, bai poema liburu batzu (Telesforok bezalaxe berriz), eta bai nobela pare bat. Gehi, noski, asteroastero, garratz, bizi, eztenkari, «Barner ac Amserau Cymru» astekarian hamar urtez atxiki zuen saila. Badirudi bere literaturlanengatik bakarrik, leku berezia jasoko duela S. Lewisek Cymruko kondairan.

Hogei bat antzerki idatzi zituen (bospasei gaur arte argitara gabeak), literatur jokabide harrigarri hau hautatuz: kondaira zaharrari buruzko antzerkiak, antzinasungiroa azkartu nahiz nonbait, bertsotan idatzi zituen; gaurko kondairari buruzkoak, berriz, hitzlauz, prosaz, idazten zituelarik.

1952an, kanpoan 16 urte egin ondoren, bere Unbiertsitatekatadera bihurtu zion britaindar gobernuak; Cardiffen oraingoan, eta gure gizonak 59 urte zituelarik.

Hauteskunder ez jokabide «demokratiko»ez erabat nardaturik, gero eta garrazkiago erasotzen zituen bere alderdikideohiak. Ned Thomasen hitzez esateko: «How nice it would be if everything were to come about constitutionally». Telesforok ere gauza bera esango zukeen: «ederra litzateke, bai, helburuak bake goxoan eta konstituziobidez lortzea. Baina... historia ez da horrela egiten».

Eta bere 69 urteetan iturrietara itzuliz, hitzaldi gogor bat egin zuen irratiz; eta hizkuntzaren aldeko mugimendu berri baten sorrera eskatu zuen 1962ko otsailean. Handik bost hilabetez, eta praktikan P. Cymruko bileren batean, 1885an ere hasia zen «Cymdeithas yr Iaith» mugimendua sortu zen; hauteskundeetatik at jokatzekotan deliberatua (= Hizkuntzaren Elkarte, nolabait esateko). Sartrek



gan Saunders Lewis

*Lewis-ek ez zuen
ingelesez ez er argitaratu*

baino lehenago hizkuntza «iskilu politiko nagusia» dela esan zuen Lewisek. Eta, batera, legetasunaren ertzeko ekintzak hasi ziren: udatiarren etxe hutsen okupazioa, pintaketak, irratiokupazioak, telebistakanpainak, borroka antinuklearra. S. Lewisek ez zuen bere buruz parte hartzen, baina mugimendu berriaren aitasa agertzen zen; eta begi onez ikusten zuen parlamentutik at hasitako lana.

Mundu modernoari buruz (eta kapitalismoari buruz ere bai, beraz) uzkur agertzen zen S. Lewis, sozialista izan zela esaterik ez badago ere. Antzinako bakardadeak eta jauntasunak nahiago zituen; eta, ahal izan zutenean, beti hautatu zuen bizilekutat naziohizkuntza bizirik zeukan herris-karen bat.

«His politics were not mere politics» idazten zuen galestar batek. S. Lewis, poeta zelako agian, eta honetan ere Telesforo bezala, gorago mogitzen zen.

Paganismoa gaitzesten zuena, izpirituaren indarrean sinesten zuena, beti ere Cymru gorago eta gorago ikusi-nahi zuena, azkenean Cymru bere buruaz jabetu aurretik hil da. Ez du helmuga ikusi. Oso bakarrik pasa ditu bere azkeneko urteak.

Agian ondorengoek ikusiko ahal dute hoberik!